Azaldutako guztiagatik, "Orbeldi presa eta zentral elektrikoa" ondare etnografikoaren elementuen artean deskatalogatzeko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntualarekin lotuta, jasotako informazioa aztertu eta esku-hartze eremuaren ondare-eraginak baloratu ondoren, honako zehaztapen hauen berri ematen da:

- -Orbeldiko presa eta zentral elektrikoa udal-babeseko ondasunen sailkapenean dago, udal-plangintzak ezartzen duen araubidearen mende. Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea aldatzen duen 14/2023 Lege berriak hala ezarrita, ondasun horiek deskatalogatzeko, ez da beharrezkoa izango Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseiluak horren aldeko txostena ematea.



Usurbilgo Udala

2024/07/24

- Dena den, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak uste du "Orbeldi presa eta zentral elektrikoa" deskatalogatzeak, eta, zentral elektrikoaren eraikina eraistea ondare- inpaktu larria eragin dezakeela. Izan ere, multzoaren funtsezko elementuetako bat desagertzea dakarren eraispen-jarduketa nabarmen bat proposatzen da, ingurune hori ezaugarritzen duen paisaia-irudia desitxuratuz eta industria-ondarearen baloreak kaltetuz.

Horregatik, EKOZren gomendioa da industria-ondareko ondasunak kontserbatzearekin eta babestearekin bateragarria den beste aukera bat aztertzea, zentralean eraikinaren eraistea saihesteko, eta, bai ibai-ingurune paisaian, bai multzoaren irudi bereizgarrian eragin itzulezina izango duten jarduketak ekiditeko.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN TXOSTENA

Plenoak hartutako erabakiaren arabera, 2024ko martxoaren 3an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntualaren inguruko txostena eskatu zitzaion. Honek ordea ez du txostenik eman.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andreak, 2024ko uztailaren 5ean, honako txostena eman du:

2024-HBES-0004

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
PLANEAMENDUA

ARAU SUBSIDIARIOETAKO ONDARE KATALOGOAREN ALDAKETA PUNTUALARI BURUZKO TXOSTENA

KOKAPENA: Orbeldi, Usurbil.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2024-HBES-0004 (HZ.01/2024-0044)

AURREKARIAK

2024ko otsailaren 29ko Usurbilgo Udalaren Osoko Bilkurak hasieraz onartu zuen Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntuala (05 aldaketa), ondare etnografikoko elementuen artean jasotako "Orbeldi presa eta indarretxea (ruina)" deskatalogatzeko xedearekin.

Hasieraz onartutako dokumentua jendaurrean jarri zen hogeita hamar eguneko epean, iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz (2024ko martxoaren 11ko GAO, 50. zk.). Espedientea jendaurrean egon den epealdian ez da alegaziorik izan.

Jendaurreko informazio epean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 100.1 artikuluan ezarritako prozedura betez, dagokion txostena eskatu zaie Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailei. 2024ko apirilaren 4ean Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren txostena jaso da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aldiz ez du txostenik egin.



Usurbilgo Udala

2024/07/24

Erlazionatutako espedientea: "Orbeldi Ur Bizien Kanala – Lurzoru Urbanizaezineko Plan Berezia" (HZ.01/2019-0589). 2019ko abendua, Gipuzkoako Piraguismo Federazioak, "Orbeldin ur bizientzako kanala ezartzeko Lurzoru urbanizaezineko Plan Berezia". Plan berezi honen helburua Orbeldi inguruan, urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan, ur bizien kanal bat ezartzea da. Plan Berezia hasieraz onartu zen eta gaur egun izapidetze fasean dago.

Prozedura horretan besteak beste, 2021 urtean EAEko Lurralde Atnolamenduko Batzordeak aldeko txostena eman zuen eta 2023ko abuztuan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako zuzendari nagusiak Interes Publikotzat jo zuen Orbeldin ur bizietako kanala ezartzeko jarduera (2023ko irailaren 1eko GAO, 169. zenbakia).

TXOSTENA

Aurrekarietan aipatu bezala Usurbilgo Udalak 2024ko otsailaren 29an hasieraz onartu zuen Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntuala (05 aldaketa), ondare etnografikoko elementuen artean jasotako "Orbeldi presa eta indarretxea (ruina)" deskatalogatzeko xedearekin.

Jendaurreko informazio epean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren idatzia jaso da, zeinak Kultura Ondareari buruzko dagozkien oharak egin eta Euskal Kultura Ondarearen zentroaren txostena gehitzen duen. Txostenak hasieraz onartutako dokumentazioaren azterketa eta ondarearen balorazioa egiten du, ondorio hauekin:

Azaldutako guztiagatik, "Orbeldi presa eta zentral elektrikoa" ondare etnografikoaren elementuen artean deskatalogatzeko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntualarekin lotuta, jasotako informazioa aztertu eta esku-hartze eremuaren ondare-eraginak baloratu ondoren, honako zehaztapen hauen berri ematen da:

- Orbeldiko presa eta zentral elektrikoa udal-babeseko ondasunen sailkapenean dago, udal-plangintzak ezartzen duen araubidearen mende. Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea aldatzen duen 14/2023 Lege berriak hala ezarrita, ondasun horiek deskatalogatzeko, ez da beharrezkoa izango Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseiluak horren aldeko txostena ematea.

- Dena den, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak uste du "Orbeldi presa eta zentral elektrikoa" deskatalogatzeak, eta, zentral elektrikoaren eraikina eraistek ondare inpaktu larria eragin dezakeela. Izan ere, multzoaren funtsezko elementuetako bat desagertzea dakarren eraispent-jarduketa nabarmen bat proposatzen da, ingurune hori ezaugarritzen duen paisaia-irudia desitxuratuz eta industria-ondarearen baloreak kaltetuz.

Horregatik, EKOZren gomendioa da industria-ondareko ondasunak kontserbatzearekin eta babestearekin bateragarria den beste aukera bat aztertzea, zentraleko eraikinaren eraistea saihesteko, eta, bai ibai-ingurune paisaian, bai multzoaren irudi bereizgarrian eragin itzulezina izango duten jarduketak ekiditeko.

Euskal Kultura Ondarearen zentroak egindako txostenean esaten den moduan, 2023an Eusko Jaurlaritzak Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzeko 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, onartu zuen. Lege horren arabera, udal katalogoko "Orbeldi presa eta indarretxea (ruina)" udal-babeseko kultur ondasuna da eta udal plangintzak ezartzen duen araubidearen mende dago, hortaz, emandako txostenak ez du izaera loteslerik izango:



Usurbilgo Udala

2024/07/24

Orbeldiko presa eta zentral elektrikoa udal-babeseko ondasunen sailkapenean dago, plangintzak horretarako ezartzen duen araubidearen mende, eta, 14/2023 Legeak ezarritakoaren arabera, ondasun horien kasuan Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseiluaren txostena ez da beharrezkoa.

Loteslea ez bada ere, txostenean honako gomendioak egin dira:

(...) zentraleko eraikinaren eraistea saihesteko, industria-ondareko ondasunak kontserbatzearekin eta babestearekin bateragarria den beste aukera bat aztertzea.

Zentzu horretan esan, hasieraz onartutako "Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntuala, ondare etnografikoko elementuen artean jasotako "Orbeldi presa eta indarretxea" deskatalogatzeko (05 aldaketa)" dokumentuan jaso dela horren inguruko aipamena eta honela dio:

Plan Bereziak kanalaren gainean kokatzen den zentralaren edo indarretxearen aurriak kentzea eta kanala zena kirol erabilerarako egokitzea proposatzen du, bertan ur-biziko kanal bat sortuz. Zentralaren aurriak kanalaren gainean kokatzen direnez, ez dira bateragarriak aurrien mantentzea eta kanala kirol erabilerarako birmoldatzea. Horregatik, kirol ekipamenduak behar dituen zerbitzuak (ontzien biltegia, aldagelak, komunak, harrera etab) kanaletik kanpo kokatuko den zerbitzu-eraikin berri baten egitea proposatzen dira.

ONDORIOAK

Aurrez esandakoagatik, "Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntuala, ondare etnografikoko elementuen artean jasotako «Orbeldi presa eta indarretxea (Ruina)» deskatalogatzeko Aldaketa Puntuala (05 aldaketa)" behin betiko onartzeari ALDEKO txostena idazten zaio, honako hauek aintzat hartuta:

- Hasieraz onartutako dokumentazioa jendaurrean egon den epealdian ez dela alegaziorik izan.
- Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzeko 14/2023 Legearen arabera, udal katalogoko "Orbeldi presa eta indarretxea (ruina)" udal-babeseko kultur ondasuna dela, eta beraz, udal plangintzak ezartzen duen araubidearen mende dagoela.
- Izaera loteslerik ez duen Euskal Kultura Ondarearen zentroak egindako proposamena ez dela egingarria, indarretxearen aurriak mantentzea eta kanala kirol erabilerarako birmoldatzea ez direlako bateragarriak.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbil, sinadura-datan.

Udal Arkitektoa

Guzti hau kontutan izanik, Lurraldea Batzordeak, 2024ko uztailaren 16an egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Iratxe Begiristain, Xabier Aranburu, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontuan hartuta, Udaltzarrak honako erabakia hartu du aho batez (legeak ezartzen duen gehiengo osoaren aldeko bozkarekin):



Usurbilgo Udala

2024/07/24

ERABAKIA

LEHENENGO: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Ondare Katalogoaren Aldaketa Puntuala (05 aldaketa) behin betikoz onartzea, ondare etnografikoko elementuen artean jasotako "Orbeldi presa eta indarretxea (ruina)" deskatalogatzeko xedearekin.

BIGARRENA: Ondare Katalogoan, ondare etnografikoko elementuen artean jasotako "Orbeldi presa eta indarretxea (ruina)" deskatalogatzeko erabakia Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Ondare Katalogoan, ondare etnografikoko elementuen artean jasotako "Orbeldi presa eta indarretxea (ruina)" deskatalogatzeko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- ADMINISTRAZIO ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA, DONOSTIA, ANDOAIN, ASTIGARRAGA, HERNANI, LASARTE-ORIA, URNIETA, USURBIL, LEZO, OIARTZUN, PASAIA ETA ERRENTERRIAKO UDALEAN ARTEKOA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI ESKATZEKO ERREGIMEN BEREZIKO EREMU BAT SOR DEZALA BIDAIARIAK TURISMO-IBILGAILUETAN GARRAIATZEKO ZERBITZUAK EMATEKO (2024HITZ0006).

Batzarkideek Lurraldea batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez (legeak ezartzen duen gehiengo osoaren aldeko bozkarekin) onartu dute, honela dio:

"ADMINISTRAZIO ARTEKO HITZARMENA

DONOSTIA, ANDOAIN, ASTIGARRAGA, HERNANI, LASARTE-ORIA, URNIETA, USURBIL, LEZO, OIARTZUN, PASAIA ETA ERRENTERRIAKO UDALEN ARTEKOA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI ESKATZEKO ERREGIMEN BEREZIKO EREMU BAT SOR DEZALA BIDAIARIAK TURISMO-IBILGAILUETAN GARRAIATZEKO ZERBITZUAK EMATEKO

....., 2024koren(a)

HONAKO HAUEK AGERTU DIRA



Usurbilgo Udala

2024/07/24

- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Donostian (Gipuzkoa) duena (Ijentea kalea 1, PK: 20.003), **DONOSTIAKO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.
- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Andoainen (Gipuzkoa) duena (Goikoplaza z/g, PK: 20.140), **ANDOINGO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.
- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Astigarragan (Gipuzkoa) duena (Foru Enparantza 13, PK: 20.115), **ASTIGARRAGAKO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.
- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Hernanin (Gipuzkoa) duena (Gudarien plaza 1, PK: 20.120), **HERNANIKO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.
- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Lasarte-Orian (Gipuzkoa) duena (Kale Nagusia 22, PK: 20.160), **LASARTE-ORIAKO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.
- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Urnietan (Gipuzkoa) duena (San Juan kalea 5, PK: 20.130), **URNIETAKO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.
- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Usurbilen (Gipuzkoa) duena (Joxe Martin Sagardia plaza z/g, PK: 20.170), **USURBILGO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.
- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Lezon (Gipuzkoa) duena (Gurutze Santuaren plaza 1, PK: 20.100), **LEZOKO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.
- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Oiartzunen (Gipuzkoa) duena (Done Eztebe plaza 1, PK: 20.180), **OIARTZUNGO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.
- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Pasaian (Gipuzkoa) duena (Donibane kalea 19, PK: 20.110), **PASAIKO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatur. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.



Usurbilgo Udala

2024/07/24

- [*] jn./and., adinez nagusia, NAN [*], ondorio hauetarako helbidea Erreterian (Gipuzkoa) duena (Herriko plaza z/g, PK: 20.100), **ERRETERIAKO UDALAREN** izenean eta hura ordezkatzuz. Alkate gisa agertu da eta Gobernu Batzordeak [*](e)ko [*]ren [*] (e)(a)n hartutako erabakia betez jardun du.

Aurrerantzean, "**Udalak**", denak batera.

Udalek elkarri aitortzen diote nahikoa ahalmen LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko. Ados jarrita,

ADIERAZTEN DUTE:

- I. Bat etorri EAEko Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo Turismo Automobiler Garraiatzeko Zerbitzu Publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3. artikuluko hirugarren puntuarekin, udalei dagokie, hiri-garraioaren eremuan, Turismo Automobilen (aurrerantzean, "auto-taxia") garraio-lizentziak ematea eta kentzea; zerbitzuak planifikatzea, ikuskatzea eta zigortzea; tarifak finkatzea, prezioen kontrolari buruzko legerian xedatutakoaren arabera; eta, hala badagokio, gidarien gaitasuna egiaztatzea.
- II. Eskumen hori erabiliz, Donostiako Udalak 308 auto-taxi lizentzia eman ditu; Andoaingoak, [*]; Astigarragoak, [*]; Hernanikoak, [*]; Lasarte-Oriakoak, [*]; Urrietakoak, [*]; Usurbilgoak, [*]; Lezokoak, [*]; Oiartzungoak, [*]; Pasaiakoak, [*]; eta Erreterriakoak, [*].
- III. Hala eta guztiz ere, azkenaldian, udalek, auto-taxien lizentzien titularrek eta gizarte-eragileek gabeziak antzeman dituzte zerbitzuan. Zerbitzua ez da nahikoa egun eta ordutegi jakin batzuetan, arazoak handiagoak edo txikiagoak izanik udalerrien arabera.
- IV. Arazo horiek konpontzeko, gaur egungo giza-baliabideak eta baliabide administratiboak eraginkortasunez erabiltzeko, eta administrazioen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren printzipioetan oinarrituta, bat etorri EAEko Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo Turismo Automobiler Garraiatzeko Zerbitzu Publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 20.1 artikulurekin, eta udalerrien artean trafiko-interakzio nabarmena dagoela egiaztatzen den neurrian, Udalek uste dute egokia izan daitekeela sortzea udalerrien arteko Erregimen Bereziko Eremu bat.
- V. Horretarako, Udalek egin dituzte Erregimen Bereziko Eremua ezartzearen aldeko txostenak, bat etorri EAEko Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo Turismo Automobiler Garraiatzeko Zerbitzu Publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 20.2 artikulurekin: Donostiako Udalak, [*](e)(a)n; Andoaingoak, [*](e)(a)n; Astigarragoak, [*](e)(a)n; Hernanikoak, [*](e)(a)n; Lasarte-Oriakoak, [*](e)(a)n; Urrietakoak, [*](e)(a)n; Usurbilgoak, [*](e)(a)n; Lezokoak, [*](e)(a)n; Oiartzungoak, [*](e)(a)n; Pasaiakoak, [*](e)(a)n; eta Erreterriakoak, [*](e)(a)n.
- VI. Ondorioz, Udalek eraman dute Erregimen Bereziko Eremua sortzeko proposamena Osoko Bilkurara eta/edo Tokiko Gobernu Batzordera, eta guztiek onartu dute.
- VII. Baterako egitasmo hau administrazio arteko hitzarmen batean gauzatzeko, Udalek erabaki dute akordio hau sinatzea (aurrerantzean, "**Hitzarmena**"), bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraztea ere, onar dezan eta Erregimen Bereziko Eremuaren nondik norakoak zehatz ditzan, EAEko Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo Turismo Automobiler Garraiatzeko Zerbitzu Publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 20.2 artikuluren arabera esleitura duen eskumena erabiliz.

AKORDIOAK

LEHENENGOA.- XEDEA

Udalek erabaki dute Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea Erregimen Bereziko Eremu bat sortzeko. Eremu horren izen ofiziala izango da "Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua", Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamen hoberik ezean,



Usurbilgo Udala

2024/07/24

eta arautuko da hitzarmen honetan eta ondorengo aldaketetan erabakitakoaren arabera, alde batera utzi gabe Gipuzkoako Foru Aldundiak egokitzen jo lezakeen erregulazioa.

BIGARRENA.- UDALEN KONPROMISOAK

Udalek konpromisoa hartzen dute Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua ezartzeko eta elkarrekin lan egiteko, turismo-ibilgailuen garraioa hobetze eta eremu horretan ematen den zerbitzua harmonizatze aldera.

Era berean, Udalek, hitzarmen hau sinatuta, konpromisoa hartzen dute Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuko kide izateko, gutxienez urte natural oso batean eremua martxan jartzen denetik, auto-taxien garraioan izan dezakeen hobekuntza ebaluatu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- LURRALDE-EREMUA

Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuak ahalmena emango die Udaletako auto-taxien lizentzien titularrei garraio-zerbitzuak eskaintzeko Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Pasaia, Oiartzun eta Errenteriako udalerrien barruan, bai eta udalerrri horien artean ere, aintzat harturik hitzarmen honen zazpigarren akordioaren arabera onartutako egutegia.

LAUGARRENA.- HIRI-ZERBITZUA

Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua indarrean sartzean, hiri-garraio zerbitzuan, aukera izango dute aipatutako udalerrietako edozeinetan helbideratutako auto-taxien lizentzien titularrek hiri-zerbitzua emateko beste edozein udalerritan, baldin eta Eremua indarrean badago udalerrri horretan, hitzarmen honen zazpigarren akordioan onartutako egutegiaren arabera.

Esate baterako, Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua Donostiako udalerrian indarrean egongo den egunetan eta orduetan, Donostian eskaini ahal izango dituzte hiri-zerbitzuak Eremua osatzen duten gainerako udalerrietan helbideratutako auto-taxien lizentzien titularrek.

Zerbitzu-mota hau hiri-garraioa izango da ondorio guztietarako, eta zerbitzua emango da une bakoitzean Eremua indarrean egongo den eta zerbitzua emango den udalerrian helbidea duten auto-taxien lizentzien titularrei aplikatzen zaizkien termino eta baldintza berberetan.

BOSGARRENA.- HIRIARTEKO ZERBITZUA

Era berean, Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua indarrean egongo denean, hiriarteko garraio-zerbitzuan, aukera izango dute aipatutako udalerrietako edozeinetan helbideratutako auto-taxien lizentzien titularrek hiriarteko zerbitzuak eskaintzeko, bezeroa hartuta lizentziaren helbidea ez den beste udalerrri batean, baldin eta Eremua indarrean badago udalerrri horretan, hitzarmen honen zazpigarren akordioan ezarritako egutegiaren arabera.

Esate baterako, Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua Donostiako udalerrian indarrean egongo den egunetan eta orduetan, helbidea beste udalerrri batean duten auto-taxien lizentzien titularrek hiriarteko zerbitzuak eman ahal izango dituzte bezeroa Donostiako udalerrian hartuta.

Zerbitzu-mota hau hiriarteko garraioa izango da ondorio guztietarako, eta zerbitzua emango da une bakoitzean Eremua indarrean egongo den eta zerbitzua emango den udalerrian helbidea duten auto-taxien lizentzien titularrei aplikatzen zaizkien termino eta baldintza berberetan.

SEIGARRENA.- TARIFAK

Tarifa hauek aplikatuko zaizkie Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuan egingo diren garraio-zerbitzuei:



Usurbilgo Udala

2024/07/24

	I. TARIFA (1)	II. TARIFA (2)	III. TARIFA (3)	IV. TARIFA (4)	V. TARIFA (5)
Gutxieneko tarifa (salbuespena: 5 minutu edo 1.500 m)	5,964693.- €	6,91065.- €	7,22.- €.	7,92 €	6,925205.- €
Egindako km	0,837677.- €	1,299642.- €	0,768655.- €	0,850042.- €	1,345130.- €
Itxarote-ordua	24,320055.- €	32,426738.- €	21,11.- €	22,19.- €	33,561597.- €

(1) Tarifa aplikagarria hiri-zerbitzuan lanegunean, 7:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa aplikagarria larunbat, igande eta autonomia-erkidegoan eta toki-araudian jaieguntzat jotako egunetan.

Gainera, aplikatuko da lanegunetan, 22:00etatik 07:00etara, ostiral eta jaiegunen bezperetako 22:00etatik larunbat edo hurrengo jaieguneko 7:00ak arte izan ezik.

(3) Tarifa aplikagarria hiriarteko zerbitzuan, 07:00etatik 22:00etara, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko abenduaren 11ko Aginduaren arabera, zeinaren bidez onartzen diren Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuen tarifa berriak.

(4) Tarifa aplikagarria hiriarteko zerbitzuan, 22:00etatik 7:00etara, eta jaiegunetan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko abenduaren 11ko Aginduaren arabera, zeinaren bidez onartzen diren Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuen tarifa berriak.

(5) Tarifa aplikagarria ostiral, larunbat eta jaiegun-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta dagozkion jaiegunetako 07:00etara.

Hitzarmen hau sinatuta, Udalek konpromisoa hartzen dute tarifa hauek onartzeko, ondoren Euskadiko Prezioen Batzordeari aurkezteko, ebazpena bidez berrets ditzan.

ZAZPIGARRENA.- EGUTEGIA

Donostialdeko Erregimen Bereziko Zonak unean-uneke gabeziei erantzun nahi dienez, soilik egongo da indarrean eta operatibo hitzarmen honen I. eranskinean (gutxi gorabeherakoa, behin betikoa zehaztu arte) aipatutako (i) egunetan, (ii) ordutegietan eta (iii) udalerrietan.

Era berean, egun eta ordutegi horiek zehazteaz gain, beharrezkotzat jotzen duten Udalek aukera izango dute gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, beren udalerrian zerbitzua behar bezala bermatze aldera. Auto-taxiko profesionalak konpromisoa hartzen dute hori zorrotz betetzeko.

Udal bakoitzak, bere udalerriko auto-taxien ordezkariari kontsultatu ondoren, egutegi bat egin beharko du urtero bere udalerrirako, azaroaren 15a baino lehen.

Udalek egutegi hori bidaliko diote Jarraipen Batzordeari, azaroaren 15a baino lehen, batzorde horrek aukera izan dezan udal bakoitzaren egutegia ebaluatu eta hobetzeko, azaroaren 25a baino lehen. Jarraipen Batzordearen proposamena gehiago soilez onartuko da, nahiz eta ez den loteslea izango Udalentzat.

Udalek, abenduaren 5a baino lehen, Jarraipen Batzordearen proposamena ebaluatuko dute, eta, egoki iritiz gero, beste egutegi-proposamen bat igorriko diote batzorde horri. Egutegi-proposamen hori loteslea izango da Jarraipen Batzordearentzat.

Azkenik, abenduaren 15a baino lehen, Udalek erabakitakoaren arabera, Jarraipen Batzordeak I. eranskina prestatuko du, hurrengo urtean indarrean egongo dena, eta Udal bakoitzari bidaliko dio, argitaratzeko.



Usurbilgo Udala

2024/07/24

Udal bakoitzak, bere kabuz, l. eranskina aldatu, zabaldu edo murriztu ahal izango du, bere beharren arabera (udalerriko jaiak, ekitaldiak, denboraldi gastronomikoak edo antzekoak), eta Jarraipen Batzordeari jakinaraziko dio, gutxienez 15 egun lehenago.

ZORTZIGARRENA.- JARRAIPIEN BATZORDEA

Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua dela-eta, Udalek erabaki dute Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea Jarraipen Batzorde bat sortzeko. Batzorde horren eginkizun nagusiak izango dira:

1. Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuko arauak behar bezala betetzen direla zaintzea.
2. Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuari dagozkion gaiak proposatzea eta horien berri ematea. Bereziki, aginduzkoak izango dira gai hauei buruzko txostenak eta/edo proposamenak:
 - Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuaren egutegia eta ordutegiak egitea (l. eranskina), Udalek proposatutakoaren arabera. Egutegiak eta ordutegiak hurrengo urte naturalean egongo dira indarrean, hitzarmen honen zazpigarren akordioan jasotako baldintzetan eta ondorioekin.
 - Udalak eremuan sartzea eta eremutik irtetea; nahitaezkoa, baina ez loteslea.
 - Hitzarmen honetan egin daitezkeen aldaketak, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu beharrekoak.
 - Hitzarmen honen xedearekin edo Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuan emandako zerbitzuekin zerikusia duen edozein gai interesgarri.

Bestetik, Erregimen Bereziko Eremua onartu eta martxan jarri ondoren, Jarraipen Batzordea arduratuko da ebaluatzeaz udalerrri bateko eta besteko zerbitzuak hobeto koordinatzeko mekanismoak eta tresnak.

Jarraipen Batzordeko kide izango dira: udal sinatzaile bakoitzeko ordezkari bat (1), hitzarekin eta botoarekin; Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat (1), kalitatezko hitzarekin eta boto bakarrarekin; Buruntzaldeko taxi-sektoreko bi ordezkari (2), hitzarekin eta botoarekin; Oarsoaldeko taxi-sektoreko bi ordezkari (2), hitzarekin eta botoarekin; Donostiako taxi-sektoreko bi ordezkari (2), hitzarekin eta botoarekin; eta Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuko taxi-elkarte garrantzitsuenetako ordezkari bana, hitzarekin baina botorik gabe. Botoa eskuordetu ahal izango da.

Kideetako batek idazkari-lanak egingo ditu, eta ordezkarien gehiengo soilaren aldeko botoarekin hartuko dira erabakiak.

Egitasmoari atxikitako Udaletan izan litezkeen aldaketen ondorioz (Eremuan sartzea edo eremutik irtetea), berdinketa gertatzen bada Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua osatzen duten Udalek erabakiak hartzerakoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak izango du kalitatezko botoa.

Jarraipen Batzordea urtean behin bilduko da.

BEDERATZIGARRENA.- ZERBITZU-EMAILEAK KOORDINATZEKO BITARTEKOAK

Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua indarrean jarri ondoren, Udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, eremuko auto-taxien elkarte garrantzitsuenek martxan jarriko dituzte Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuaren hasierako indarraldian beharrezkotzat joko diren zerbitzu-emaileen arteko koordinazioa eta komunikazioa bermatzeko bitartekoak.

HAMARGARRENA.- HITZARMENA BURUTZEA

Hitzarmen hau burutuko da hitzarmena osatzen duten Udaletako Tokiko Gobernu Batzordeek onartu eta haien ordezkariak sinatzean.



Usurbilgo Udala

2024/07/24

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENAREN ERAGINAK ETA IRAUPENA

Hitzarmenak sinatzen den unetik izango du eragina eta behartuko ditu aldeak.

Indarraldia lau (4) urtekoa izango da, eta beste lau (4) urtez luzatu ahal izango da.

HAMABIGARRENA.- EREMUAN SARTZEA ETA EREMUTIK IRTETEA

Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuan sartu ahal izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste udalerrri batzuk, hitzarmenaren parte diren Udal guztiak gehiengo soilez ados jarri ondoren. Horretarako, udal bakoitzeko organo eskudunek onartu beharko dute hitzarmenaren dagokion eranskina, ordezkariak sinatu aurretik.

Edozein udalek, Bigarren Akordioan adierazitako epea igarota, Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremutik atera nahi duela adierazi ahal izango dio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Erabaki hori Jarraipen Batzordeari jakinaraziko zaio, gutxienez HIRU (3) HILABETE lehenago, hitzarmen hau aldatzeko eta dagokion nahitaezko txostena egiteko (ez loteslea), ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzeko.

Udal berri bat sartzek edo sinatzaileetako bat irteteak zabaldu edo murriztu egingo du Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuaren lurralde-eremua.

HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMENA DESEGITEA

Hitzarmena bertan behera gelditu ahal izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik.

Edozein sinatzailek bere betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, hitzarmena bete duen aldeak errekerimendu bat egingo dio bere betebeharrak bete ez dituen aldeari, bete gabetzat hartzen diren konpromisoak edo betebeharrak epe jakin batean bete ditzan eskatzeko.

Errekerimenduan adierazitako epea amaitzean ez-betetzeak jarraitzen badu, errekerimendua egin duen aldeak hitzarmena suntsiarazteko arrazoa jakinaraziko dio besteari, eta desegintzat joko da hitzarmena. Hitzarmena desegiteak berekin ekarriko du eragindako kalte-galera guztiak ordaintzea.

HAMALAU GARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen hau administrazio hitzarmena da, eta interpretatu eta garatuko da administrazio publikoen arteko lankidetzaren hitzarmenei aplikatu dakiekeen ordenamendu juridiko-administratiboaren arabera.

* * *

Eta horrela jasota gera dadin, hitzarmen hau sinatu dute Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenterriko Udalek, udal adina aletan eta ondorio bakarrerako, 2024ko [*]ren [*] (e)(a)n.

**DONOSTIAKO UDALA
ASTIGARRAGAKO UDALA
LASARTE-ORIAKO UDALA
USURBILGO UDALA
OIARTZUNGO UDALA
ERRENTERRIAKO UDALA**

**ANDOAINGO UDALA
HERNANIKO UDALA
URNIETAKO UDALA
LEZOKO UDALA
PASAIKO UDALA**



Usurbilgo Udala

2024/07/24

I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ARAUBIDE BEREZIKO EREMUAREN 2024KO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

DONOSTIAKO UDAL-MUGARTEA

2024KO EKAINA

EGUNA	ORDUTEGIA
Ekainaren 1a, larunbata	20:00 - 24:00
Ekainaren 2a, igandea	00:00 - 07:00
Ekainaren 5a, asteazkena	23:00 - 24:00
Ekainaren 6a, osteguna	00:00 - 07:00
Ekainaren 8a, larunbata	20:00 - 24:00
Ekainaren 9a, igandea	00:00 - 07:00
Ekainaren 15, larunbata	20:00 - 24:00
Ekainaren 16a, igandea	00:00 - 07:00
Ekainaren 22a, larunbata	20:00 - 24:00
Ekainaren 23a, igandea	00:00 - 07:00
Ekainaren 29a, larunbata	20:00 - 24:00
Ekainaren 30a, igandea	00:00 - 07:00

2024KO UZTAILA

EGUNA	ORDUTEGIA
Uztailaren 1a, astelehena	20:00 - 24:00
Uztailaren 2a, asteartea	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 3a, asteazkena	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 4a, osteguna	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 5a, ostirala	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 6a, larunbata	00:00 - 01:00 / 12:00 - 24:00
Uztailaren 7a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 8a, astelehena	00:00 - 01:00
Uztailaren 13a, larunbata	12:00 - 24:00
Uztailaren 14a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 15a, astelehena	00:00 - 01:00
Uztailaren 20a, larunbata	12:00 - 24:00
Uztailaren 21a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 22a, astelehena	00:00 - 01:00
Uztailaren 23a, asteartea	20:00 - 24:00
Uztailaren 24a, asteazkena	00:00 - 06:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 25a, osteguna	00:00 - 06:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 26a, ostirala	00:00 - 06:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 27a, larunbata	00:00 - 06:00 / 12:00 - 24:00
Uztailaren 28a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Uztailaren 29a, astelehena	00:00 - 01:00
Uztailaren 30a, asteartea	20:00 - 24:00
Uztailaren 31, asteazkena	00:00 - 06:00 / 20:00 - 24:00

2024KO ABUZTUA

EGUNA	ORDUTEGIA
Abuztuaren 1a, osteguna	00:00 - 06:00
Abuztuaren 3a, larunbata	12:00 - 24:00
Abuztuaren 4a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Abuztuaren 5a, astelehena	00:00 - 01:00
Abuztuaren 10a, larunbata	12:00 - 24:00



Usurbilgo Udala

2024/07/24

Abuztuaren 11, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Abuztuaren 12a, astelehena	00:00 - 01:00 / 12:00 - 22:00
Abuztuaren 13a, asteartea	12:00 - 22:00
Abuztuaren 14a, asteazkena	12:00 - 24:00
Abuztuaren 15a, osteguna	00:00 - 07:00 / 12:00 - 22:00
Abuztuaren 16a, ostirala	12:00 - 22:00
Abuztuaren 17a, larunbata	12:00 - 24:00
Abuztuaren 18a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Abuztuaren 19a, astelehena	00:00 - 01:00
Abuztuaren 24a, larunbata	12:00 - 24:00
Abuztuaren 25a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Abuztuaren 26a, astelehena	00:00 - 01:00
Abuztuaren 31, larunbata	12:00 - 24:00

2024KO IRAILA

EGUNA

Irailaren 1a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Irailaren 2a, astelehena	00:00 - 01:00
Irailaren 7a, larunbata	12:00 - 24:00
Irailaren 8a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Irailaren 9a, astelehena	00:00 - 01:00
Irailaren 14a, larunbata	12:00 - 24:00
Irailaren 15a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Irailaren 16a, astelehena	00:00 - 01:00
Irailaren 20a, ostirala	20:00 - 24:00
Irailaren 21a, larunbata	00:00 - 01:00 / 12:00 - 24:00
Irailaren 22a, igandea	00:00 - 24:00
Irailaren 23a, astelehena	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Irailaren 24a, asteartea	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Irailaren 25a, asteazkena	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Irailaren 26a, osteguna	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Irailaren 27a, ostirala	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Irailaren 28a, larunbata	00:00 - 01:00 / 12:00 - 24:00
Irailaren 29a, igandea	00:00 - 24:00
Irailaren 30a, astelehena	00:00 - 01:00

ORDUTEGIA

2024KO URRIA

EGUNA

Urriaren 5a, larunbata	12:00 - 24:00
Urriaren 6a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Urriaren 7a, astelehena	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Urriaren 8a, asteartea	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Urriaren 9a, asteazkena	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Urriaren 10a, osteguna	00:00 - 01:00
Urriaren 11, ostirala	20:00 - 24:00
Urriaren 12a, larunbata	00:00 - 01:00 / 12:00 - 24:00
Urriaren 13a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Urriaren 14a, astelehena	00:00 - 01:00
Urriaren 17a, osteguna	20:00 - 24:00
Urriaren 28a, ostirala	00:00 - 01:00 / 20:00 - 24:00
Urriaren 19a, larunbata	00:00 - 01:00 / 12:00 - 24:00
Urriaren 20a, igandea	00:00 - 07:00
Urriaren 26a, larunbata	12:00 - 24:00
Urriaren 27a, igandea	00:00 - 07:00
Urriaren 31, osteguna	20:00 - 24:00

ORDUTEGIA



Usurbilgo Udala

2024/07/24

2024KO AZAROA

EGUNA

Azaroaren 1a, ostirala	00:00 - 07:00
Azaroaren 2a, larunbata	12:00 - 24:00
Azaroaren 3a, igandea	00:00 - 07:00
Azaroaren 8a, ostirala	20:00 - 24:00
Azaroaren 9a, larunbata	00:00 - 01:00 / 12:00 - 24:00
Azaroaren 10a, igandea	00:00 - 07:00 / 20:00 - 24:00
Azaroaren 11, astelehena	00:00 - 01:00
Azaroaren 16a, larunbata	22:00 - 24:00
Azaroaren 17a, igandea	00:00 - 07:00
Azaroaren 23a, larunbata	22:00 - 24:00
Azaroaren 24a, igandea	00:00 - 07:00
Azaroaren 30a, larunbata	22:00 - 24:00

ORDUTEGIA

2024KO ABENDUA

EGUNA

Abenduaren 1a, igandea	00:00 - 07:00
Abenduaren 5a, osteguna	22:00 - 24:00
Abenduaren 6a, ostirala	00:00 - 07:00 / 22:00 - 24:00
Abenduaren 7a, larunbata	00:00 - 07:00 / 22:00 - 24:00
Abenduaren 8a, igandea	00:00 - 07:00
Abenduaren 14a, larunbata	22:00 - 24:00
Abenduaren 15a, igandea	00:00 - 07:00
Abenduaren 21a, larunbata	20:00 - 24:00
Abenduaren 22a, igandea	00:00 - 07:00
Abenduaren 24a, asteartea	20:00 - 24:00
Abenduaren 25a, asteazkena	00:00 - 20:00
Abenduaren 31, asteartea	20:00 - 24:00

ORDUTEGIA

ENERO 2025

Urtarrilaren 1, azteazkena	00:00h -20:00h
Urtarrilaren 5a, igandea	22:00h- 00:00h
Urtarrilaren 6a, astelehena	00:00h - 07:00h / 20:00h -24:00h
Urtarrilaren 7a, asteartea	00:00h -01:00h
Urtarrilaren 19a, igandea	20:00h-24:00h
Urtarrilaren 20a, astelehena	00:00h-07:00h

ANDOAINGO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke

ASTIGARRAGAKO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke

Baloratzeke: sagardotegi-garaiko egunak eta ordutegiak

HERNANIKO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke

Baloratzeke: sagardotegi-garaiko egunak eta ordutegiak

LASARTE - ORIAKO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke



Usurbilgo Udala

2024/07/24

URNIETAKO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke

USURBILGO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke

LEZOKO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke

OIARTZUNGO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke

PASAIKO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke

ERRENTERRIAKO UDAL-MUGARTEA

Zehazteke

Gauzak horrela, Lurraldea Batzordeak, 2024ko uztailaren 16an egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Iratxe Begiristain, Xabier Aranburu, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren ALDEKO botoekin, hau da, AHO BATEZ, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez (legeak ezartzen duen gehiengo osoaren aldeko bozkarekin):

ERABAKIA

BAT: ONARTZEA Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriako udalen arteko Araubide bereziko eremuaren ezarpena, bidaiariak turismo-ibilgailuetan garraiatzeko zerbitzuak ematekoaizango dena.

BI: ONARTZEA "Administrazio arteko hitzarmena - *Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriako udalen artekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzeko erregimen bereziko eremu bat sor dezala bidaiariak turismo-ibilgailuetan garraiatzeko zerbitzuak emateko*" izeneko lankidetzeta-hitzarmena.

HIRU: AHALMENA EMATEA alkateari lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko, eta baita hori garatzeko beharrezko diren agiri guztiak sinatzeko ere, araubide bereziko eremua sortzeko behar den dokumentazio guztia barne.

LAU: Araubide Bereziko Eremua indarrean dagoenean, Ainhoa Arrozpide Landa izendatzea Udal honen ordezkari lankidetzeta-hitzarmenaren 8. akordioan arautzen den jarraipen batzordean, eta Iratxe Begiristain Otegi bere ordezko."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

2024/07/24

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:25etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.